



EZKER ABERTZALEA BERPENTSATZEN

IKUSPEGI ZAHARKITUAK ASTINTZEKO GAKOAK
GAZTEEN ESPERIENTZIATIK

Nola egin iraultza XXI. mendean?

Gogoeta garaiak bizi ditugu Euskal Herriko panorama politikoan. Ezker Abertzalea bere burua berpentsatzeko prozesu ugaritan sartuta dago. Horrez gain, hainbat herri mugimendu aurrera begira egin beharreko bidea oinarritik planteatzen ari dira, barneko botere harremanak aztertzen eta antolaketa ereduak aldatzen.

Kide gazteak pixkanaka protagonismoa irabazten ari dira, baina zeri ematen diote garrantzia hauek? Zerk mugitzen ditu politikan? Zein dira erronkak beren ustez? Zein gaik kezkatzen ditu?

Elkarrizketatuetako batek mahai gainean ongi jarri bezala, “ezker abertzalea” terminoak ere gaizki-ulertuak eragin ditzake, bi errealitate ezberdin izendatzeko erabiltzen baita. Batetik, Ezker Abertzalea hiru antolakunderekin (Sortu, LAB, Ernai) osatutako egitura bat da, eta honi erreferentzia egitean maiuskulaz idatziko dugu; bestetik, egitura horretatik harago, zabalagoa den mugimendu ezkertiar eta abertzalea izendatzeko ere erabiltzen da. Kasu honetan letra xehez idatziko dugu.

Erreportajea bigarren ulerkera honetatik planteatu dugu. Beren burua ezker abertzaleko kide gisa identifikatzen duten Euskal Herri zabaleko hamaika kideren gogoetak jaso ditugu: Amaia Agirretxe, Kimetz Arana, Elorri Arin, Jone Etxeberria, Izar Mendiguren, Aiora Mujika, Ortzi Murua, Markel Ormazabal, Endika Perez, Irati Siena eta Amaia Zufia. Bakoitzarekin ordubetez aurrez aurre egindako elkarrizketak abiapuntu hartuta osatu dugu erreportajea. Ez da noski gazteriaren argazki oso bat, baina egungo egoera ulertzeko gako batzuk, galdera berriak eta aurrera egiteko proposamenak topatuko ditu irakurleak.

■ **Egilea: Lander Arbelaitz**
Argazkiak: Elkarrizketatuek utziak.

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.509. zenbakiarekin banatua, 2016ko maiatzaren 29an)



Irati Sienna deustuarra Ernaiko kidea da, azken urteetan feminismoaren eraginez aldaketa ikusi du ezker abertzalean, batez ere diskurtsiboa.

“Oso desmobilizatuta ikusten dut egoera, Euskal Herrian dugun borroka tradizioa izateko oso hotz”. Irati Siennaren hitzak dira (1990, Deustu). 15-16 urterekin hasi zen ikasle mugimenduan eta egun Ernaiko kidea da. “Batetik, gatazka politikoaren erroetara joateko aukera eta bestetik ikaragarritzko ofentsiba neoliberalak bizi dugun garaiotan, beste herri batzuei begira gaudela sentitzen dut, Katalunia, Eskozia, Grezia edo Latinoamerika kasu, gu ia ezer egiten jarri gabe”.

“Jendeak ez du ezker abertzalea bertan antolatzeko alternatiba bat bezala ikusten”. Siennaren aburuz, eragileek 80ko hamarkadako antolaketeekin jarraitzen dute, beren jardun nagusia bilertan edo espazio txikietan eginez, eta gauza asko egiten ari diren sententzioa izan dezaketen arren, kalean ezer gutxi egiten ari direla uste du.

Abian prozesuarekin berriz sartu da Sortun Elorri Arin. 1991n Baionan sortua, Donibane Lohitzunen bizi da. 15 urterekin hasi zen Segin, eta geroztik hainbat herri mugimendutan ere ibilia da: Altxa Neskatzia, gaztetxea, EHZ eta Joxemi Zumalabe Fundazioa besteak beste. Borroka armatuarekiko estrategia aldaketa egin zenean, desadostasunak medio kide batzuek militantzia utzi zutela gogoratzen du. “*Abian* prozesua, bere hutsuneak hutsune, arnaste berri bat iruditu zait”.

Jendearen pasibitatea du kezka nagusi. Garai batean gehiago erreakzionatzen zela iruditzen zaio. “Erasoen aurrean atxematen dut indibidualtasunean sartuta gaudela, ez dela bortxaz erreakzionatzen. Etorkinekin gertatzen ari den guztiaren aurrean, adibide bat jartzearren, hemen ez da ezer gertatzen ari”.

“Euskal Herria orokorrean lasaitu otzan batean ikusten dut”. Endika Perez (1988, Larrabetzu) 14-15 urterekin hasi zen gazte asanbladan eta gazte-txean, ondoren Ikasle Abertzalearen eta ondoren Segin. Egun Ernaiko kidea da. Iruditzen zaio *Zutik Euskal Herriarekin* estrategia moldeetan bakarrik aldatu zela, baina diskurtsoan, antolaketa eremuan eta kultura politikoa ezker abertzaleak ez zuela bere burua egokitu aldaketa horri aurre egiteko. Aukera berriak sortu ditu, baina gatazka bisibilizatzeari uzteko arriskua ikusten du Perezek.

“Gatazka politikoa desitxuratuta dago, orain badirudi ETAre jardunean kokatzen zela gatazka. Ez gara pulstu politikoa mantentzeko gai izan, gatazka beste molde batzuetan kokatzeko, konfrontazio politikoa indarrean mantentzeko”. Batzuetan etsaiaren arabera pausoak ematen ibili dela iruditzen zaio Perezi. Lehen urteetan aldaketa ezartzeko eta atzera bueltarik ez emateko zentzua izan zezaketen hainbat ekimenek bere ustez, baina gehiegi luzatu dira. “Azken urteetan zentzurik ez duten adierazpen politiko batzuek ere egiten ari gara”. Adibidez galdetuta, 2014ko martxoan Troikako ordezkariak Bilbora joan zirenekoa berreskuratu du. “Hauek datoz eta beldur inperatiboan dugu ea zer gertatuko den. Ez dugu nahi inolako biolentzia politiko adierazpenik, hori atzean utzi nahi dugun fase bateko elementua delako, kontuan hartu gabe, Troika Greziara, Alemaniara edo Europan barrena joatean hiriek sutan amaitzen dutela, Euskal Herria ez dela burbuila bat eta erreferentzia batzuk oso pedagogikoak direla mundu mailan”.

“Ilusio eta inplikazio falta ikusten dut, jendeak bere buruarengan eta komunitatean gauzak aldatzeko sinismen faltarekin lotua”. Izar Mendiguren (1988, Audio) ikasle mugimenduan hasi zen 16 urterekin. Egun ez dabil inongo egituratan eta herri mugimenduetan batez ere komunikazioaren ikuspegia lantzen du. “Hala ere, badauzkagu ilusioa pizten duten proiektuak buruan eta esku artean, kontua da ahalduntze bat behar dugula”. Oinarri soziala atzeko planoan ez geratzeko zain-

tzari arreata jarri behar zaiola uste du, “herritarrak politikaz interesa ez daitezen sistemak aisialdian mila baliabide eskaintzen baititu”.

“Ezker abertzaleak badu joera aldaketa baten bidez nonbaitera iritsi eta bertan egokitze. Egun ezin da hori egin ordea, aldaketak oso bizkorak direlako”. Markel Ormazabal (1982, Donostia) ikasle mugimenduan hasi zen 14-15 urterekin eta ordutik saltza ugaritan ibili da: gaztetxe eta okupazio mugimenduan, Donostiako Piraten sorrera urteetan, eta Jarrai, Haika eta Segi gazte erakundeetan. Egun Ezker Abertzalean eta herri mugimenduetan ibiltzen da. “Kezkatuta nago uste dudalako Ezker Abertzalea ez dela erantzuten ari bere osotasunean gizartean ematen ari diren aldaketei”.

“Geroz eta gehiago dira diotenak azken 30 urteetako zikloaren aldaketa industrializazio garaian eman zenaren tamainakoa izan daitekeela. Orain arte ohikoak ziren zutabeak aldatuko dira eta ezin asmatuzkoa da datorkiguna, horregatik eskatzen du etengabeko gogoeta, etengabeko kokatu beharra eta gerri politikoa”, defendatzen du Ormazabalek.

Jendartea berraktibatzen asmatzea da gakoa Jone Etxeberriaren ustez (1979, Ordizia). Itoizko kableak moztu zituzten garaian hasi zen, 16-17 urterekin AHTren aurkako asanbladan. Zazpi urtez kanpoan ibili ostean, EAE-ANVko zerrendetan joan zen eta bere lekua ezker abertzalea zela ikusi zuen. Egun Sortuko kidea da.

Neoliberalismoari aurre egingo dion alternatiba badagoela erakustea lehentasunezko jotzen du, nahiz eta garbi dioen: “Ideien borroka galtzen ari gara”. Hainbat faktoreen artean, *hispanozentrisismoaren* indarra nabarmentzen du. “Hego Euskal Herriko hedabide gehienetan, ETBn kasu, hemengo datuak Espainiako Estatuko datuen ondoan ematen dituzte beti, osasuna, langabezia, hezkuntza, industria, zerbitzuak... *ez gaude baina gaitzkei* pentsamendua sustatuz, hemen ere abera-

tsak aberasten eta pobreak txirotzen ari garen bitartean”. *Status quo*a horrela ere defendatzen dutela iruditzen zaio. “Beti egon gintezkeela okerrago, eta beraz, zertarako altxa?”, galdetzen du.

KOHESIO FALTA KEZKA ITURRI

“Aniztasunaren izenean erradikaltasuna galtzeko saiakerak kezkatzen nau”. Amaia Agirretxe (1991, Azpeitia) mugitzen 16-17 urterekin hasi zen, eta unibertsitatean ikasle mugimenduan sartu zen. Egun gazte mugimenduko eta mugimendu feministako kidea da. Bere ustez aniztasuna eta erradikaltasuna bateragarriak dira, eta jendeak bere kasa pentsatzea bultzatu behar da. “Zurruntasunak kezkatzen nau, eta zatiketak, disidentziak... nola kudeatzen ari garen. Gertatzen ari dena ukatzea, bestearen iritzia deslegitimatzea... Egia esan kohezio falta ikusten dut”. Bere ustez ezker abertzaleak anitza izan behar du, “hala garelako”.

“Asko kostatzen zaigu aurrera egitea kontraesanei eta kritikei beldurra diegulako. Aurrera egiteko korapilo hau askatu behar dugu, izan ere orain erresistentzia jarretatik ofentsibara pasa nahi dugu, euskal estatu hori gaurdanik eraikitzea”. Irati Sienrak uste du borroka bera askatzailea dela eta kontraesanak kudeatu behar direnean blokeatu egiten direla ezker abertzaleko kideak. “Arazo handia da hau”.

“Etxea txukundu behar dugu lehenik, ezin aurrera egin gabiltzala dirudi, ez dugula amaitzen”. Aiora Mujika (1987, Anoeta). 15 urterekin gaztetxean hasia, gero Ikasle Abertzalearen eta unibertsitate garaian hainbat antolakundetan ibilia. Egun komunikazio alorrean aritzen da.

Estrategia aldaketa trasatlantikoaren biraketa-ekin lotu izan dela baliatuta, iruditzen zaio aldaketa horretan arrakalak izan zirela itsasontziaren hondoan, izen eta abizenak dituzten tentsioak, eta hauek konpontzen lana egin beharra dagoela, arrakalak sakontzen joan aurretik.



Ezkerrean Amaia Zufia iruindarra, Bilgune Feministako kidea, Gasteizen egin zen manifestaziorako deialdia babesten.



Amaia Agirretxe azpeitiarra, ezkerretik bigarrean, gaztetxearen urteurren festan, baltsa jaitzierako sariarekin.



Jone Etxeberria (eskuinetik bigarrena) ordiziarra AHTren aurkako asanbladan hasi zen 16-17 urterekin. Irudian ekintza baten ostean Ertzaintzak atxilotu zuen unean.

“Iruditzen zait iraganeko gauza batzuk ez ditugula guztiz askatu, eta aurrera begira gauza batzuk ez ditugula oraindik erditu”. Amaia Zufia (1990, Iruñea). Gazte mugimenduan hasi zen, eta 15-16 urterekin ikasle mugimenduan sartu zen. Egun Bilgune Feministako kidea. “*Gu* izaera galtzeko beldurra dugu eta horrek ikuspegiak zabaltzeko eta beste eremuetan elkarlanak abiatzeko aukera kentzen digu, independentzia prozesu baten parte izan daitekeen jendearekin”. Feminismotik interdependentziaren kontzeptua landu dutela baliatuz, sakoneko eraldaketarako subjektuak ere elkarren arteko beharrekin ikusten ditu eta egun mesfidantza ugari dagoela dio.

“Batuetan uste dut formak ez direla gehiegi zaintzen. Prozedurak eta formalitateek, zilegitzea ematen diote prozesu bati. Nola zilegitu? Egiteko modutik. Askotan aldarrikatzen dugunaren

aurkakoa transmititzen dugu. Adibide bat jar-tzearren, *Euskal Bidea*. Aurrez egindako hausnarketa asko biltzen zituen arren, ez zen gehiegi zabaldu mugimenduan, hauteskunde kanpainako testuinguru batean aurkeztu zen. Erre egiten du horrek”. Ortzi Murua (1995, Azkaine) Segiren disoluzioaren ostean hasi zen gazte mugimenduan, 16-17 urterekin, nahiz eta aurretik gazte-txean ibiltzen zen. Egun Aitzinako kide da, bes-teren artean.

HARREMANAK ZAINDU

“Militatzen dugun momentuan, gure harremanak zaintzeari garrantzia emango nioke. Batuetan bilkura hotzak ditugu, aio aio eta lixto. Hurbiltasun hori faltan botatzen dut”, dio Elorri Arinek. Azpeitian ere Amaia Agirretxek antzeko

gogoeta partekatu du: “Ikusten dira saiakera politikak ere, batzarretan sekula egin ez denean errondak proposatuz denok hitz egin dezagun, bilera beharrea beste formatu batzuk proposatuz eta abar, baina oraindik lan dexente dugu egiteko. Adibidez, batzarrak amaitzean, bertan parte hartu duen jendea ez bada gai elkarrekin egunerokotasunaz hitz egiteko, zaila da hortik zerbait oso ongi ateratzea”.

Jone Etxeberriak garbi hitz egiten du militantzia ereduari buruz. “Estrategia independentista gure herrietara ekartzeko zer egin behar dugu? Zer borrokari eutsi? Eta nola borrokatu? Azken honetan gabezia handia dugu. Batez ere erresistentzian gaudelako, eta gure oinarri sozialaren eta militantziaren perfila ez datorrelako bat erronkarekin. Oso perfil erresistentea dugu, ez eraikitzailea. Normala da eta ez da militanteen ardura. Kontua da garbi izatea trantsizioa egin behar dugula, baina dagoeneko sei urte pasa ditugula horretan, eta aldaketa garrantzitsuak emateko unea da”. Kide batzuk birziklatu egin beharko dira bere ustez, eta beste batzuek beste gauza batzuetan jardun beharko dute. Sortuko kidearen hitzetan, orain arte zentroan egon diren militante asko periferiara pasa beharko dira, eta alderantziz. “Aldaketa eta ardura handia da ezker abertzalearen historiaren motxila hartu eta aurrera egitea. Nola egiten dugu gatazkaren konponbidean aditua den militantzia bat LOMCE, Fiare, TTIP eta nazio eraikuntzan aktibo bilakatzeko?”.

“Zer lortu nahi dugun eztabaidatuta planteatu behar genituzke mobilizazioak ere –dio Amaia Agirretxek–. Atzoko mobilizazio batzuk mantentzen ditugu, beste batzuk biharko egunaren izenean baztertzen ditugu, baina bitartean ez gara pentsatzen jartzen egiten ari garen horretatik zer atera nahi dugun”. Herri mugimenduetako kideek elkar ezagutu eta formatu behar dutela uste du, hortik etorriko direla etorkizuneko aliantzak, eta horregatik, Joxemi Zumalabe Fundazioaren *Bor Bor (k)* ikastaroan parte hartu izanagatik oso pozik dago.

KONFORT EGOERATIK ATERA ETA HERRIETAN MURGILDU

“Trintxeran egotetik, herrian murgildu eta proposamenak egiteko izugarritzko aukera zabaldu da egoera berriarekin. Norabidea definitu beharrea gaudela uste dudana arren, iruditzen zait Euskal Herrian badagoela saltsa potentea”. Kimetz Arana Trapagarangoa da, Ezker Abertzaleko egituretan dabil 14 urte zituenetik, beti ere herri mailan. Ikasle mugimenduan, gazte mugimenduan eta egitura politikoan. Egun Trapagarango Sortuko taldean eta EH Bilduko sarean ibiltzen da gehienbat udal dinamikak eta kalea lotzen, ekimen eta protesta batetik bestera. “Aldaketa hain handia izan da, gure egiturak eta jendea ez zeudela prest”. Bere ustez gakoa da ezker abertzaleak bere proposamen politikoa nori zuzentzen dion argitzea.

“Ez badakizu zer nolako herria nahi duzun, nekez egin dezakezu aurrera”. Proiektuaren definizio faltak berau ahultzen duela uste du Markel Ormazabalak. “Trudikatu behar dugu zer nolako herria nahi dugun. Sektore askok egin dute, feminismitik, *antidesarollismitik* eta abar, baina orokorrean irudikapen horiei guztiei zentzu kolektiboa ematea falta zaigu”.

Estrategia independentista eraldatzailea abian jartzea da Jone Etxeberriaren ustez erronka nagusietako bat. Hau zehaztea eta lur hartzea herrietan. “Eraldatzaile” hitzari garrantzia ematen dio eta gustura da *Abian* dokumentuan hala jaso delako. “Ezker abertzaleko jende asko dago borroka mordotan, egituratuta egon gabe, periferian lanean. Ezker abertzaleak ez du hori elikatu azken urteetan, eta elikatzen hasteko, zein izango da aterkia? Estrategia independentista eraldatzailea”, dio.

Arana kezkatzen du ezker abertzaleak aldaketa sozialaren gakoetan sortuko ote duen euskal estatua eraikitzea doan independentismoa ala ez. “Horrelako proiektu batek Euskal Herriko



Elorri Arin donibandarra berriz hasi da Sortun Abian prozesuarekin eta hau arnaste berri bat iruditu zaio.



Izar Mendiguren amurriarra datozen Espainiako hauteskundeetan Arabatik Senatura joateko hirugarren doa zerrendan. Madrilerako euskal herritarren eskubide, behar eta nahiak eramatea garrantzitsu ikusten du.

jendearen gehiengoaren adostasuna lor dezake”. Euskal herritarrei erakundeetan gardentasun gehiago, parte hartzeko aukerak, demokrazian sakontzeko bideak, justizia sozialean eta berdintasunean aurrera egiteko balio behar diela defendatzen du. “Gauza da ea hori gure herrietan artikulatzeko gai garen, ez soilik gure proposamenarekin, baizik eta loturak eginez proiektu hori konpartitu dezaketen sektoreekin, antolatuak eta antolatu gabeak”.

“Langabetuak, etorkinak, zapalduak... onar ditzagun haien identitateak eta adierazi hau beren herria dela, beren historia Euskal Herriko historia dela”. Kimetz Aranek ikusten duenez, “azpikoen identitateak” partekatzen du sektore zabal batek, jatorriak jatorri eta identitateak identitate, eta aldaketaren gakoetan ematen dute bozka hauek. Aranaren ustetan, Ezkerraldea ezezagutzatik gutxietsi egiten da abertzaletasuna ahul delako, baina bere ustez paradokiko Bizkaian noizbait EAJri irabazi nahi badio ezker abertzaleak, sektore herriko horiek guztiak elkartzean dituen proposamena egin behar du, “horrekin gehiengo garelako”. Gauza bera uste du beste lurraldeekin ere. “Behar dugu proposamen bat eroso sentiaraziko dituen azpiko sektoreak, elkartuko dituen. Epe ertain batean Euskal Herria askatasunera eram dezake horrek”.

Periferiako borroka zentrorako ekarri behar direla uste du Jone Etxeberriak, nahiz eta ez den erraza izango. “Nola sartu independentziaren ardatza borroka feminista konkretu batean? Edo ekonomia sozial eraldatzailean? Euskal estatua tresna gisa erabili behar dugu egungo egoera hau eraldatzeko. Egun harremanik ez dugun mugimendu sozial askotan lan egin behar dugu, pertsona zintzo, umil eta langileak izanez, barrutik *“Aquí en España”* ateratzen zaien kideekin”.

“Jendartean dagoen indibidualizazioerako joera, gure militantzian eta espazio politikoetan

ere sartzen ari da; horren aurrean prozesuak kolektiboki egitearen aldarrikapena zabaldu behar dugu”, dio Amaia Zufia iruindarrak. “Gutasun batean askatuko gara edo hemen ez dago aske izaterik. Zaintza ezinbestekoa da gure jendartean, baina zaintzaren hipertrofia bat ikusten dut. Asko lotzen ari da auto-zaintzarekin eta horren izenean gauza asko egiten dira, kolektiboa gauza asko egiteari utziz”. Hor korapilo bat dagoela uste du. Norbanakoarekin batera, taldea eta proiektua ere zaindu behar direla uste du.

Bere ustez, proiektuak hezurmamitzen dituzten kontzeptu batzuk birdefinitu egin behar dira ikuspegi anitzetatik, hala nola, bakea, nazioa, herria, demokrazia eta gatazka. “Oso oinarritzokak diren arren, oso modu aldebakarrekoan definitu izan dira, eta zergatik ez esan, batzuetan oso modu patriarkalean. “Bakea, adibidez. Argi diogu hemen ezin dela bakeaz hitz egin urtean hildako mordoa daukagunean, sistematikoki erasotuak eta bortxatuak garenean gizartearen erdia. Zer da bakea?”, galdetzen du. Zufiak ikusten du nazioarekiko atxikimendua subjektu gehiagok bere egitea nahi bada, ulerkerak zabaldu behar direla eta hau bazterretatik definitu. “Bakea, esaterako, prozesu konplexua izango da, giza eskubideekin du zerikusia, botere harremanen eraldaketarekin eta elementu asko barnebilduko ditu”.

“Ezinbesteko ez da inor, baina beharrezkoak denak gara –dio Izar Mendigurenek–. Konpromiso maila ezberdinak kudeatzen finago ibili behar dugu, konpromiso izateari utz ez diezaioiten”. Horrekin batera, harreman askoren potentzialtasuna ez dela baliatzen ari uste du. “Non biltzen dira 55 urte eta 18 urteko kideak batera? Bada espaziorik elkarlan horiek sustatuz? Hor jakituria asko galtzen ari gara”.

“EZIN GARA EAJ-REN ZAIN EGON”

Kimetz Aranaren ustez, Telesforo Monzonen garaietatik datorren EAJrekiko konplexu handi

bat dago ezker abertzalean: “Abertzaleok elkarrekin joan behar dugu Maltzagaraino, eta hamarkadak eman ditugu momentu hori itxaroten. EAJri eskua luzatzen, pentsatuz noizbait estatuarekin konfrontazio batera joaten bagara, derrigor elkarrekin behar duela”.

“Nire iritzia da ezin garela EAJren zain egon etengabe, eta egungo indar galtzearen arrazoieta bat hori dela. Beti pausoak neurtzen, ekintzak bideratzen EAJrekin elkarlan batera”. Kataluniako prozesua ikusita, eskema hori indartu dela iruditzen zaio. “Oso ezkorra naiz gai horrekin, gehiago ikusita EAJ inoiz baino erosoago, egitura instituzionalaren kudeatzaile nagusi EAE eta Nafarroan. Zail egiten zait hori aldatu nahiko dutela pentsatzea”. Bere ustez ezkerreko terminoetatik indarrak herrigintzan jartzeko unea da, alternatiba soberanista ezkertiarra landuz, EAJren posizioa ahulduko lukeena eta alderdi hori elkarlanera eramango lukeena, bere burua kolokan ikusten badu.

Irati Sienraren ustez, EAJk ez du euskal estatu bat nahi, beren interes ekonomikoak Espainiako Estatuan daukatzelako. “Eta nahi balute, aberastasuna biderkatzeko nahiko lukete, justu guk kontrakoa nahi dugunean, herritarrontzat justizia soziala; beraz, gaur gaurkoz EAJ ez da batuko prozesu independentistara”.

HERRIETAN MURGILDU

“Gure artean egon gara, ez gara gure herrietan murgildu. Praktika militantea aldatu behar dugu. Eroso ibili behar dugu gure herrietan. Gure sentitu ez ditugun beharrak ere ezagutu behar ditugu. Kanean etxeko zapatilekin ibili behar dugu”. Kimetz Aran dio Meatzaldean eta Ezkerraldean gai honi buelta asko eman dizkiotela azken urteetan; baita emaitzak jaso ere.

“Goitik behera zetozen kanpainekin funtzionatzen ohitu gara. Herriak eraiki nahi badi-



Goian: Markel Ormazabal Donostiako Aste Nagusi Piratan. Bidea ekintzaren bidez egin behar dela defendatzen du, egoera berriak sorraraziz.

Behean: Aiora Mujika anoetarrak uste du diskurtso ilusionagarriak jaurtitzea positiboa dela, baina gero pausoak ematen badira, bestela frustrazioa eragiten duela.

tugu, militantzia eredu autonomoa behar dugu, bere baliabideak garatuko dituen, ildo adostuen barnean erabakiak hartzeko gaitasuna duena. Militantzia indarra eta baliabideak jartzeari eskatzen du honek, formakuntza eta indartze pertsonala praktiketan. Egitura guztiak egokitu beharko lirateke hori egoki ikusten bada”.

Aranak liberatuen figura hartu du adibide. “Orain arte gehienbat informazioaren transmisore funtzioa izan badute, hemendik aurrera eskualdeen dinamizazio figura hartu behar dute, herrietako jendeari baliabideak ematen dizkion pertsona izan”. Horretarako eskualdeak goitik behera ezagutzen dituzten kideak behar direla uste du.

Erabakiak kolektiboan hartuz asanblearismoan sakondu behar dela uste du, ez estrategia handiei buruz aritzeko, baizik eta gertuko beste galdera batzuei erantzuteko: “Gure herrian hurrengo urtean zer egingo dugu? Barakaldon zer? Sestaon zer? Noraino heldu nahi dugu? Zer indar ditugu? Zein dira eraginguneak? Zer esparruk sortzen du ideologia? Non eman dezakegu urrats bat gehiago?”. Bere ustez ezker abertzaleko militantzia esparruak hori behar du izan.

Azpeitian martxoaren 8aren harira, “*emakume anitz, errealitate anitz*” izenburupean, feminismoa modu ezberdinetan lantzen duten elkarte ugari mahai ingurua antolatu zuten, ardurak banatuta. Elkarren lanaren berri izan eta sareak josteko balio izan ziela gogoratzen du Amaia Agirretxek. “Badago borondatea auzoetako jendearekin lan egiteko, gaizki pasatzen ari den jendearengana hurbiltzeko”.

“Erroka gisa, masa kritikoa indartu, elkar-tu, berriz ere borrokara ilusionatu, sinetsi norbere gaitasunetan, hitza eta erabakia guk dugula”, dio Elorri Arin donibandarrak. “Borrokari jarraitu behar dugu, ez soilik gatazka politiko-

an, beste arloetan ere lan handia da egiteko: feminismoan, euskalgintzan edo ekologismoan, batzuk aipatzearren”.

KULTURA POLITIKOA EGOKITU

“Orain ezin da eztabaidatu, ez dago baldintzarik, hau da erabakia eta gero eztabaidatuko dugu. Klandestinitatetik gatoz eta urte askoan hori onartu dugu, baina egoera aldatu den honetan, asko zaindu behar dira formak. Eztabaidarako espazioak eraikitzen badira, gai bati buruz iritzi ezberdina badut ere, ikusiz gero gehiengoak ez duela hori pentsatzen, onartu eta defendatuko dut. Baina ez badago non hitz egin gai bat, horrek asko zailtzen du kohesioa”. Alor honetan asko dagoela hobetzeko iruditzen zaio Aiora Mujikari.

Parte hartzeko modu mugatuek kezkatzen dute Izar Mendiguren. “Jende asko kanpoan geratzen da, ekimenetan parte hartzeko planteatzen diren moldeak egungo bizi eremuan ez direlako ongi txertatzen, adibidez, herri batzarrak”. Ordutegiaren arabera, batzuk ala besteek ezin izaten dutela bertaratu dio, eta galdetzen du ea kide horien ekarpenak jasotzeko indarra egiten den. Bitartekoak jartzen al dira horretarako? Hausnartu al da taldeetan horren inguruan? Nola egin daiteke erakargarriago parte hartzea?”, galdetzen du amurriorak. Hainbat lekutan bideoekin eta formatu berriekin esperimentatzen ari direla txalogarri zaio.

“Kezkatzen nau jendeak zentzurik ez ikustea ezker abertzalean militatzeari. Egun zer da ezker abertzaleko militante izatea? Zer lan dakar horrek? Erantzunik ez baduzu edo “ezer ez” bada, jendeak beste bide batzuk bilatzen ditu, inguruan ikusten dugu jendea ez dela zain egongo”, dio Markel Ormazabal donostiarrak.

Gaur egungo ezker abertzaleko belaunaldi gazteek transmisioan etena izan dutela irudi-

tzen zaio Ormazabali. “Badakigu ezker abertzalea zer izan den? Zer den? Nondik datorren? Zein oinarri eduki dituen? Badakigu bere historia? Zalantza handiak ditut eta transmisiorik gabe geratzen garenean, proiekturik gabe geratu gara”.

“Indartu behar da proiektu politikoaren definizioa eta kultura politikoa, inizatiba politikoa berreskuratu behar da, aldaketarako egoerak sortu behar dira, baina bereziki barneratu behar dugu aldaketak ematen ari direla eta aldaketa horiek ondo ulertu eta ongi eragiten asmatu behar dugula”. Markel Ormazabalen aburuz, eraldaketaren alde lanean ari direnen elkarlana da bidea. “Ez gara eraldaketarako subjektu bakarra, gehiago daude, eta hauen elkarlanetik etorriko dira fruituak, baina hauetan eragin behar dugu, eta horretarako inizatiba behar da”.

“Norberak bere baloreekin itxura bat eraman dezake, baina praktikan ez badu egiten, itxurakeria handia ikusten dut”. Elorri Arinek uste du militantzia eguneroko konpromisoetara ere ekarri behar dela. “Uste dut kontzientzia hau ez dela zabaldua”. Alde honetatik, sortze prozesuan den Lurralde Askea mugimendua esperientzia interresgarria iruditzen zaio.

AZPIKOEN IDENTITATEA OSATU

“Instituzioek dituzten mugez gain, hauteskundeetan ez dugu gehiengorik lortzen. Aldi berean, alternatibek mikroan ez dute gaitasunik gizarte osoaren beharrei erantzuteko. Eztabaida hori beste urrats batera eramateko moduan garela uste dut. Ez ote gara aldaketa berriak orain arteko hitz zaharrekin interpretatzen ari?”. *L'art de la revolte* liburuak ideia hori jasotzen duela aipatu du Ortzi Muruak. “Nik uste badirela baldintzak esperientzia mikroak saretzeko eta mundu mailako ezkeraren askapen prozesu batean kokatzeko”.



Ortzi Murua azkaindarrak (ezkerrekoa) uste du aldebakartasunaren kontzeptua gaizki erabiltzen ari dela Ezker Abertzalea eta ideiaren argitze kolektiboa behar dela.

Nazioarteko erreferenteei garrantzia ematen die, eta bere aburuz, independentismo eraldatzaileak ez luke atzerrira begiratzean Eskozia eta Kataluniako kasuetara mugatu behar, mundu mailan herritarren burujabetzaren alde ari direnak ere nabarmendu behar lituzke, Britainian aireportu baten aurka aurrera daramaten ZAD proiektua kasu. “Erreferente horiek gure sentitu behar ditugu, hausnarketa interesgarriak direlako”. Bere buruari dagozkion erabakiak norberak hartzea mundu mailan ezkerren ideia orokorretako bat bilakatzen ari den honetan, indartsu ikusten ditu abertzaleak, ideia hori DNAn daramatelako. “Diskurtso orokor horrekin lerrokatu behar dugu geure burua”.

Bere ustez, jendearekin hitz egitean, sistema kapitalistaz aritzean, ezin da esan kapitalismoak guda irabazi duela, indar harremanean hain urrun egonik beste bide bat hautatzen dela, amore eman balitz bezala. Bere aburuz, argi utzi behar da sistema gisa ez dela bideragarria, krisia muturrera doala eta gizarteei ez diela ongi egituratzen uzten. “Ez da bakarrik esatea ez gaudela ados, bortxaz behar da beste eredu bat, goazen elkarrekin egitera”.

Horretarako pauso zehatzak eman behar direla ikusten du, aukerak baliatu, eta adibidez, Kutxabanken pribatizazioaren gaian, Muruak ez du ulertzen nola ez den baliatu banku etikoen gaia mahai gaineratzeko. Koop57 kasu, Euskal Herri mailako banku etiko indartsu bat, webgunean erraz adieraziko duena nola igorri dirua bertara.

“Besteak bezalakoak bihurtzen ari gara, hori ezin da gertatu”, dio argi Kimetz Aranak. “Hauteskunde kanpainak auzolanean oinarrituta egon behar da eta herriko jendeak hitz egin behar du. Lantaldeak baditugu herrian, horiek azaldu behar dute proiektua, eta ez kanpotik kamioiak ekarri gure logoarekin, edo tranbian gure hautagaiaren argazkia jarri”. Mikrofona herritarrei eman behar zaiela defendatzen du, eta horrek taldeak indartzea ekartzen duela.

“Euskal Herrian PSOEtik ezkerreara gauden pertsonak soziologikoki jende bera gabela uste dugu Ezkerraldean askok”, dio Kimetz Aranak. Oroitzen du orain zortzi urte politikoki hazi nahi zutela eta borroka nazionala indartzeko, auzoetako borroka sozialetan sartu behar zirela ondorioztatu zutela Trapagaranen. “PSOE sortu zen lekuan, La Arboleda auzoan, nahiz eta jakin harresi asko eraitsi behar genituela, gure ekimenean hurbiltze bat izan da urte hauetan, lantaldeak sortu dira bertako kideekin, proposamenak eginez, kezkak bideratuz. Lau urteren ostean, hauteskundeetan Bildu hirugarren indarra izatek lehen indar nabarmena izatera igaro da meatzari auzoetan, hain justu oso euskaldunak ez diren guneeetan”.

FEMINISMOTIK ALDAKETA

“Kezkatzen nau estrategia berrian zer apustu egingo den feminismoarekiko. Orain arte borrokan hierarkizazioa egin dela sentitzen dut ezker abertzalean, eta borroka batzuek besteak irentsi dituztela”. Amaia Zufiak nahi du Euskal Herrian

dauden erroko gatazken aurrean borroka egingo duen subjektua osatzea, hauek mailakatu beharrean. “Genero zapalkuntza eta zapalkuntza antzaz errotzen ditu eta hori iraultzeko feminismoa proposamen politikoaren erdian jarri behar da, barnerako eta kanporako tresnak eskatzen ditu honek”.

“Feminismoak indar handia du gazte mugimenduan, ia herri guztietan daude talde feministak”. Irati Sienraren ustez horrek erakusten du feminismoaren inguruan ezinegon handia dagoela, eta horrek aurrerantzean herri mugimenduetan eragina izango duela.

“Ilegalizazioa aitzakia gisa erabili da eztabaida batzuk ez irekitzeko”. Sienra zorrotz mintzo da Ezker Abertzalea barneko botere harremanei buruz. “Errepresioak ere horra eraman du, baina oso militantzia maskulinizatua izan dute espazioek, gizonen beteriko zuzendaritzekin, gizonen erabakitzen zer egin, adinean aurrera egin ahala, emakumeak militantzia eremuetatik kanporatzen”.

Azken urteotan aldaketa handia nabari du, gehien bat alderdi diskurtsiboan. Bere ustez antolakunde bakoitzak barne mailan landu behar du, horretarako guneak sortuz. “Jende baten partetik erresistentziak daude gai hau lantzeko”.

Sienraren ustez ezker abertzaleko emakumeek mugimendu feministan antolatutako abertzaleekin egin behar dituzte aliantzak, batez ere Bilgune Feministarekin. “Urte askotan lan handia egin du ezker abertzalea feminizatzeke, eta hori aitortu egin behar zaio”. Horrez gain, gizonen beren pribilegioez eta hauei nola uko egin hausnartzeko espazioak sortu behar dituzte, feminismoan gizontasuna lantzeko.

Amaia Zufiaren ustez, ezker abertzaleko gizonen prest egon behar dute boterea konpartitzeko —“bestela kendu egin beharko zaie”—, eta



Endika Perez Iarrabetzuarra Ernaiko kidea da. Ezker Abertzalea bera ahul egon arren, ekimenekin asmatuz gero jendeak parte hartzen duela uste du.

subjektu feminista izateko barne prozesu kolektibo bat behar dela ikusten du. “Sistema patriarkalak zenbaterainoko eragina duen aztertu behar da, feminismoak zer proposamen politiko egiten duen ezagutu, eta harremanei buruz azterketa kontziente bat egin behar dugu, zer birproduzitzen dugun ikusteko”.

LURRALDE TASUNA MAPATIK HARAGO

Trapagarandik Kimetz Aranako oso lotura gutxi ikusten du Euskal Herria deitzen dugun lurraldearekin. “Banatuta gaude, euskal kulturaren eragina txikia da gure hirietan, lurraldetasuna mapa batetik harago ez dugu eraikitzen. Independentista garenok hori uztartu behar dugu: Saretu baztertuta dagoen jende guztia proiektu batean eta Euskal Herriarekiko hurbiltasuna transmititu, eta euskara, baldintza beharrean, proiektua uztartzen duen zerbaite bezala planteatu”. Euskaldun batek Ezkerraldean bere minorian sentitzen duena senti dezake galiziar batek edo senegaldar batek Bilbon bere ustez.

“Nahiko haserre naiz Ipar Euskal Herriak duen trataerarekin. Bere garaian Segin militaritzen



Kimetz Arana trapagarandarrak argi du: "PSOEtik ezkerrera gauden guztiok soziologikoki proiektu bera osa dezakegu".

genuen, klandestinoki, eta bilerak egiten genitue-
nean Hegoaldeko kideekin. Egoera oso zaila zen
eta hilean behin biltzen ginen, erakunde naziona-
la ginela esanez". Egun, legaltasunean, ez du
harremanik ikusten ia. "Ez da nik espero dudan
harremana, orain hamar urte bezala gabiltza".
Diskurtso politikoetan Espainiaz bakarrik hitz
egiten dela ikusten du, Arnaldo Otegiaren azke-
nak kasu. "Eta Frantzian zer dugu? Ez al dugu
gatazkarik? Berotzen nau gai honek".

"Badira kasu politikak, EHZN adibidez,
zubiak ditugu Donostiako Piratekin eta beste
eragileekin, baina nola da posible Ezker Aber-

tzaleko erakundeen artean ez harreman gertu-
korik izatea?".

Aldi berean, Ipar Euskal Herrian Ezker Aber-
tzalea egituratzen ari da, Sorturen eratzea eman
zenezan, Iparraldean une txarra zela gogoetatuta.
Ortzi Muruaren pentsamendua asko doa horra:
Nola saretu elkar modu eraginkor batean?

KONFRONTAZIOA BEHAR DA

"Nola egiten da iraultza Euskal Herrian XXI.
mendean?", galdetzen du Endika Perezek. Indar
metaketa eta konfrontazioa uztartu behar ditu
ezker abertzaleak bere aburuz. "Harreman ere-
duak, kontsumo ohiturak, konpromiso militan-
tea beste espazio batzuetara eramatea... ezker
abertzaleak identitate iraultzaile berri bat sortu
behar du erantzunak emateko egunero sistema-
ren aurka egin nahi duteneri".

"Talka irudikatu behar dugu", dio larrabe-
tzuarrek. "Irabazteko aldatu genuen estrategia,
ez sisteman integratzeko. Beste jendarte eredu
bat nahi dugu, eta horrek derrigor konfronta-
zioa eskatzen du. Ezin gara denen lagunak
izan, hemen proiektu ezberdinak daudelako".
Bere ustez konfrontazioa kalera atera behar da,
desobedientzia ekintzak ugaritu ados ez diren
gaietan.

"Ezker abertzaleari ekintza falta zaio", dio
Markel Ormazabalek. "Ekintza da aldaketarako
egoerak sortzen dituen". Norabide honetan
herri harresien arrakasta aipatzen du, une
batean atxilotetak eten zitezkeela irudikatze-
ra heldu zirela gogoratuz. "Zientoka gorputz pila-
tu ziren atxilotuak izango zirenak babestera,
horietako asko atxilotetak eten genitzakeela
sinistera iritsi ginelako; hori irudikatzeari utzi
diogun unean indarra galtzen joan da". Irudi-
katzeak errealitatea gainditzeko indarra ematen
du Ormazabalen ustez. "Ertzaintzak Donostia-
ko Askegunea desegin zuenean, kideen sentsa-

zioa zen: 800 geunden, baina hurrengoan 3.000 bagaude, eta herri honetan egon gaitezke 3.000, ez dituzte atxilotuko”.

BLOKEOA GAINDITZEKO ORDUA

“Euskal Herriak badu urte askotako ibilbidea, herri mugimenduek auto antolatzeke gaitasuna sobera dute, eta herri txikia garenez, sinergiak sortzea errazagoa da. Apalduta badago ere, jendeak badu prestutasuna. Ezker Abertzalea ahul egon da, baina ingurua? Kanpoan baldintzak badaude, agian etxe barruan dugu apatia puntu hori –dio Endika Perezek–. Dinamika politikak planteatzean jendeak erantzuten du, tekla egokiak jo behar. Baldintza subjektiboak landu behar ditugu, ezin dugu amets egiteari utzi”.

“Euskal Herria oso aberatsa da proiektuetan, herri mugimenduak ikaragarriko erronkak atera ditu aurrera”, dio Izar Mendigurenek. “Herri baten izaera da, eta hor indarra egin behar dugu. Gogoratu behar dugu oinarriko proiektu asko auzolanean atera direla aurrera, ikastolen mugimendua kasu”.

“Agian belaunaldi aldaketa leku batzuetan ongi etorriko litzateke, nik komunikazioaren esparruan ikusten dut”, dio Aiora Mujikak. “Bizi osoa esparru honetan daramanak ohitura batzuk dauzka eta formatu batzuetara jotzen du nahi gabe. Agian bere lanean oso ona da, baina norberaren gabeziak ikusten ere jakin egin behar dugu. Kode berriekin hazi diren belaunaldi digitalek beste gako batzuetan pentsatzen dute, eta ideien transmisioan jarri behar da indarra”.

“Asmatu behar dugu subjektu anitz bat osatzen, eta ez da batere erraza”, dio Amaia Zufiak. “Independentzia prozesu baten parte izan nahi duten subjektu guztiek izan behar dute leku bat honen oinarriak jartzeko, eragiteko, hau martxan jartzeko eta erabakiak hartzeko”. Konfluentzia guneak sortu behar direla uste du, agenda batera-

tuekin batera. “Herri honetan eraldaketa emateko lanean ari garen guztiok aitortza eta mintzaketza behar dugu. Agian eremu guztiak batuko dituen konfluentzia gune bakarra sortzea ezinezkoa izango da, baina gune gehiago behar dira eta subjektu anitzak aitortu”.

“Nola irabazten du ezker abertzaleak sinesgarritasun politikoa berriz ere eraldaketarako ari diren eragileetan? Batetik, ahaztuz inizatiba duen bakarra dela, eta bestetik, urte hauek guztietan metatu dugun kapitala eraldaketarako prest dauden indarren mesedetan jarriz”, dio Ormazabalek.

“Akademiko gehiegi eta akzio gutxiegi dugu –dio Irati Sienrak–, kalera atera behar dugu eta gauzak egin; ezker abertzaleak badaki hori egiten”.

“Azken urteetan mugimendua ahul egon da, eta gazte mugimenduan ere erasoei erantzuten indar handia jarri dugu. Hala ere, gazte mugimendua berpizteko lanean ari gara eta nahiko prozesu emankorra izaten ari da”, dio Irati Sienrak. Bere hitzetan, gazteak ez direla borrokara lotzen saltzen dute hedabideek, baina hori ez da horrela. “Euskal Herriko gazteria oso anitza da, korrante ideologiko askotakoak eta eragile asko antolatzen ari dira, pixkana elkarrekin konfluentziak egiteko; adibidez, gazte asanbladak eta gaztetxeak oso gogoeta interesgarrietan ari dira beren funtzioei buruz. Alternatibak eraikiz goaz”.

“Indarrak berriz hartu eta gure artean zintzoki egon behar dugu, itxura gutxiagorekin, gauzak egin nahi ditugulako. Egin den guztiagatik zor dugu borrokan jarraitzea, eta sinetsi behar dugu berriro borrokan”, dio Elorri Arinek.

“Estrategia aldatu dugu, itxaron da estatuen partetik pauso batzuk egitea, ez dute egin guk nahi heinean, eta hor ezker abertzaleak indar asko galdu du. Orain ilusioa ikusten dut hainbat konturekin –dio Arinek–: Ados, borroka ez da eten, parentesi bat izan da”. ■

EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

<input checked="" type="checkbox"/> ARGIA erretan jarri nahi dut.	Urte osoko harpidetza
<input type="checkbox"/> ARGIA astero, hilean 12€ soilik	
<input type="checkbox"/> ARGIA hamabostero, hilean 6,5€ baino gutxiago	
<input type="checkbox"/> ARGIA hilero, hilean 3,5€ baino gutxiago	
NOMEZ: _____	
ADINA: _____	
HEZKEDUNAREN ADINA: _____	
KONTU ERABILKETA: _____	